BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

2487

EBAZPENA, 2014ko maiatzaren 6koa, Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariarena, jarraian aipatzen den modeloa baimentzeko ZIV Metering, Solutions S.L. enpresak egindako eskabideari buruzkoa. Modeloa: 4 motako zuzeneko konexiorako 5CTD-E1F, rev. D, hain zuzen B motako energia aktiboko eta 2 motako energia erreaktiboko kontagailu estatiko konbinatuen sarean erabiltzeko eta instalatzeko dena.

Erref.: DEMAI-MET/AUS-14/01.

AURREKARIAK:

Lehenengoa.– 2014ko martxoaren 7an, ZIV Metering, Solutions, S.L. enpresaren izenean eta ordez (helbidea: Zamudioko Parte Teknologikoa, 407. erakina, 48170, Bizkaia) Cristina Martínez Ruiz andreak baimen-eskabidea egin zuen 4 motako zuzeneko konexiorako 5CTD-E1F rev. D modeloa B motako energia aktiboko eta 2 motako energia erreaktiboko kontagailu estatiko konbinatuen sarean instalatzeko eta erabiltzeko. Hona hemen ezaugarriak:

Modeloa	5CTD-E1F rev. D
Mota	Energia aktiboko B eta energia erreaktiboko 2
Energiaren noranzkoa	Noranzko bikoa
Konstantea	1.000 imp/kWh eta 1.000 imp/kvarh
Gutxieneko korrontea	0,5 A
Erreferentzia-korrontea	10 A
Gehieneko korrontea	80 A
Tentsio nominala:	3 X 127-230/400 V
Frekuentzia	50 Hz
Isolamendua	Bikoitza
Babes mota	II.
IP gradua (60529an)	IP51
Eragiketa-tenperatura	-25 ºC-tik + 70 ºC-ra
Kokapena	Barrukoa
Ingurune mekanikoa	M1
Ingurune elektromagnetikoa	E2

Bigarrena.– 2014ko apirilaren 16an, Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzan espediente bat jaso zen, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzaren aldeko txostena biltzen zuena, non honako dokumentazio hau agertzen baitzen:

(Memoria tekniko deskribatzailea, ZIV markako 5CTD-E1F rev, D modeloko kontagailuarena. Cristina Martínez Ruiz andreak izenpetu du memoria (4789 zenbakiko elkargokidea), eta Bizkaiko Industria Ingeniarien Elkargo Ofizialak bisatu du, 0291-2014 zenbakiarekin, 2014ko martxoaren

5ean. Memorian hauek biltzen dira: deskripzioa, ezaugarri teknikoak, doitze-tarteak, eragiketa-printzipioak, eskemak, planoak eta gainerako elementuak.

(Modeloaren azterketa eta saiakuntza-ziurtagiria, biak ere Espainiako Metrologia Zentroak emanak (erakunde jakinarazia: 0300):

– 2. gehigarria, EEk 070659004 modelo-zenbakiaren gainean egindako azterketa-ziutagiriarena, 2008-07-09koa.

Saiakuntza-ziurtagiria, 130770005 zenbakiduna, EMZ Espainiako Metrologia Zentroak azaroaren 25ean emana.

Saiakuntza-ziurtagiria, B41-13-AB-12 zenbakiduna, Tecnalia Research&Innovation-ek 2013ko apirilaren 8an emana.

Neurketa-tresnak bete beharreko software-baldintza espezifikoak baliozkotu dira, EMZk emandako 130770004 ziurtagirian.

Hauek dira aplikatu beharreko arauak:

UNE-EN 50470-1 araua, «Energia elektrikoa (k. a.) neurtzeko tresnak. Betekizun orokorrak, saiakuntzak eta saiakuntza-baldintzak. 11. zatia: Neurketa-tresnak (A, B eta C motako indizeak)».

UNE-EN 50470-3 araua, «Energia elektrikoa (k. a.) neurtzeko tresnak. Betekizun orokorrak, saiakuntzak eta saiakuntza-baldintzak. 3. zatia: Energia aktiboko kontagailu estatikoak (A, B eta C motako indizeak)».

UNE-EN 62052-11 araua, «Energia elektrikoa (k. a.) neurtzeko tresnak. Betekizun orokorrak, saiakuntzak eta saiakuntza-baldintzak. 11. zatia: Neurketa-tresnak».

UNE-EN 62052-21 araua, «Energia elektrikoa (k. a.) neurtzeko tresnak. Betekizun bereziak. 21. zatia: Energia aktiboko kontagailu estatikoak (1 eta 2 motak)».

UNE-EN 62053-23 araua, «Energia elektrikoa (k. a.) neurtzeko tresnak. Betekizun bereziak. 22. zatia: Energia erreaktiboko kontagailu estatikoak (2 eta 3 motak)».

(ZIV Medida, S.L.k egindako adostasun-adierazpena, non azaltzen duen bat datorrela abuztuaren 24ko 1110/2007 Errege Dekretuan eskatzen diren betekizunekin eta funtzionalitatearekin eta gainontzeko segurtasun eta bateragarritasun elektromagnetikoko baldintzekin.

(Bateragarritasun elektromagnetikoari buruzko saiakuntza-ziurtagiria, Tecnalia Research&Innovation-ek 2013ko apirilaren 8an emana.

Espediente hau ebazteko, honako hauek hartu behar dira kontuan:

ZUZENBIDE-OINARRIAK

Bat.– Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariak du ebazpen hau emateko eskumena, betiere Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 9ko 190/2013 Dekretuaren 13. artikuluan ezarritakoari jarraikiz (2013-04-24ko EHAA).

Bi.– Abuztuaren 24ko 1110/2007 Errege Dekretua, Sistema elektrikoko neurketa-puntuei buruzko Araudi bateratua onartu eta sistema elektriko nazionaleko neurketa-sistemen eta bera osatzen duten ekipoen funtzionamendu-baldintzak eta ezaugarriak arautzen dituena.

Hiru.– Eskabidean, baimena eskatzen da B motako energia aktiboko eta 2 motako energia erreaktiboko kontagailu estatiko konbinatuentzat, hau da, 4 motako zuzeneko konexiorako 5CTD-E1F, rev. D modeloarentzat, hain zuzen ere sarean instalatu eta erabiltzeko. Izan ere, modelo hori ez da arautu araudi metrologiko espezifiko baten bidez, eta, beraz, sarean instalatu eta erabiltzeko, baimendu beharra dago modeloa, betiere 1110/2077 Errege Dekretuan zehaztutakoarekin bat etorriz.

Ikusirik aurrekariak eta aplikatzeko diren legezko aginduak, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– ZIV Metering Solutions, S.L. enpresari baimena ematea 4 motako zuzeneko konexiorako 5CTD-E1F, rev. D modeloa instalatzeko eta erabiltzeko B motako energia aktiboko eta 2 motako energia erreaktiboko kontagailu estatiko konbinatuen sarean.

Bigarrena.– Baimen honek Estatuaren lurralde osorako balio du, Sistema elektrikoko neurketa-puntuei buruzko Araudi bateratua onartzen duen abuztuaren 24ko 1110/2007 Errege Dekretuaren 8. artikuluan zehaztutakoarekin bat etorriz.

Hirugarrena.– Lehenagoko baimenei ezarri zitzaizkien baldintza berberei eutsi beharko die ZIV Metering Solutions, S.L.k, eta hauexek dira:

a) Baimen hau lortzeko aurkeztutako dokumentazioan zehaztutakoarekin bat etorri beharko dute, oso-osorik, merkaturatzen diren tresnek.

b) Kontagailuen diseinuan aldaketaren bat eginez gero, haiek merkaturatu eta instalatzeko, indarrean den araudiaren araberako saiakuntzak egin beharko dira, eta bai modelo aldatuaren baimen espezifikoa lortu ere.

c) Markaketa egokitu egingo zaio Neurketa-tresnen gaineko Estatuko kontrol metrologikoa arautzen duen uztailaren 21eko 889/2006 Errege Dekretuan zehaztutakoari.

d) Tresnak instalatu baino lehen, jatorrian egiaztatuko dira, neurketa-puntuei buruzko araudian ezarritako sistematikak egingo dizkie horretarako baimen ofiziala duen egiaztatzaile batek, eta zigilatu egingo dira, manipulazioa saiheste aldera, betiere ebazpen honen eranskinean ageri diren eskemekin bat etorriz. Metrologia-kontroleko erregistro zenbakia eta egiaztatze-urtearen azken bi zenbakiak grabatuko zaizkio zigiluari.

Laugarrena.– Baimen honek, gehienez, bost urteko balio-epea izango du, edo energia elektrikoa neurtzeko sistemak arautuko dituen araudi berri bat aplikatzetik ateratzen den epea, hura baino laburragoa bada. Baimen hau luzatu ahal izango da, elkarren segidako epe berdinetan, aurretik hala eskatzen bada.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Industriako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik aurrera, hala ezarrita baitago Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatzen duen 4/1999 Legean.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko maiatzaren 6a.

Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendaria,
JAVIER ZARRAONANDIA ZULOAGA.

ERANSKINA

ZIGILUEN KOKALEKUA ETA DATU ETA PARAMETROEN SEGURTASUNA

5CTD kontagailuak zigilu fisikodun sistema bi dauzka. Horretaz gainera, softwarea babesteko sistema bat ere badauka, eta giltza bat, zeinek eragozten baitu parametroak baimenik gabe aldatzea (zigilatu daitekeen estalki baten azpian daude sakagailuak, eta giltza horrek itxi egiten du estalkia).

Irudian ikusten denez, zigilu fisikoetako bi hariak estaltzeko estalkian daude jarrita, hain zuzen ere tresnako borneak babesteko. Beste bi zigiluak, berriz, kontagailuaren estalkian daude, eta berme- eta egiaztatze-zigilu gisa erabiltzen dira.

Azken zigiluaren eginkizuna da ezaugarrien plakak eta programazio- eta reset-sakagailuak babestea.

Zigila daitekeen torloju / zirrikitu bakoitza agente jakin batentzat jarrita dago, zigilatu ditzan:



6. irudia: zigiluen kokalekua

– 1. zigiluak: elektrizitatea banatzen duen enpresarentzat dago jarrita, eta borneetara eta kableetara sartzea eragozten du.
– 2. zigiluak: tresnaren kutxa zabaltzea eragozten dio ZIV Medida fabrikatzaileari.
– 3. zigilua: elektrizitatea banatzen duen enpresarentzat dago jarrita, eta reset- eta programazio-sakagailuetara sartzea eragozten du.

Tresnako parametro kritikoenak aldatzeko, horretarako baimena duten langile espezializatuek parametrizatze-software espezifikoaren bidez sartu beharko dute tresnan, idaztea ahalbidetzen duen sarbide-gakoa erabilita, eta tresna programazio-moduan dagoela. Tresna modu horretan jartzeko era bakarra da zigila daitekeen estalkiaren azpiko sakagailuari eragitea –pantailan, dir-dir egiten duen puntu baten bidez dago adierazita sakagailu hori–. Horretaz gainera, tresnaren datuak eskuratu nahi izanez gero, irakurketarako soilik den gako bat sartu beharra dago.